

## Ala itsasontzi bat eraikiko dute asteburuan Albaolako arotzek

by **Pasolako Hitza** on 2014/05/22 in **EKONOMIA**

XX. mendera arte sagardoa zein bestelako zamak garraiatzeko ala itsasontziak erabiltzen zituzten Urumea ibaian, eta usadio hori ahaztu ez dadin, asteburuan, Albaola elkarteko arotzek horietako itsasontzi baten erreplika eraikiko dute Donostiako kaian. Proiektuak Urumearen dinamizazio turistikoa du helburu eta Lizeaga eta Petritegi sagardotegien laguntzaz gauzatu da. Donostia/San Sebastian 2016 Europako Kultur Hiriburutzak antolatutako Olatu Talka kultur jaialdiaren barruan kokatu behar da iniziatiba. Behin ala itsasontzia eraikita, Urumea inguruan gastronomia, turismoa eta ondarea batzeko baliabide turistiko gisa erabiliko dute. Horrez gain, igandean, 13:30ean, idiek tiratutako gurdi kupela izango da kaian.

📍 **ala. albaola**

◀ Axular plazako lanak astelehenean hasiko dira

Azken Portuko igerilekuak itxita egongo dira larunbat arratsaldean ▶

### Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

OR

Name

Email

Not published

Website



CAPTCHA Code \*

Post it



**Bilatu zure inguruko ostatua**

Bilatu



**Hazi ta Hezi**

deskontua

%18

**13,00 €**

**Eskaintza ikusi**